

Oroimena lagun**[Erretiradako tren, 1997]**

Javier Rojo

El Correo, 1997-12-24.

Martin Ugaldek burutu dituen lanen artean, literaturaren esparruan egin duena piskat baztertua, ahaztua geratu da. Izan ere, kazetaritzan egindako lanek literaturazkoak estali dituzte. Literaturari dagokionez, ipuingintzan aritu da gehienbat idazle hau, eta liburu honetan bere kondagintzaren adibide interesgarri bat ikus dezakegu. Zazpi narrazio biltzen dira orri horietan, azkena izan ezik (liburuari izenburua ematen diona hain zuzen) oso luzeak ez direnak. Eskuaratean darabiltzan gaien artean, gerrarena nabarmentzen da. Gerra garaiko pasadizoak, zenbaitetan bere bizitzatik ateratako gertaerak kontatzen dizkigu istorio horietan, beti ere ahulen aldeko jarrera agertzen duelarik. Kontatzeko eran, bestaldetik, nik narratzailearen ikuspuntu aldaketa bitxiak aipatuko nituzke. Askotan, beti ez esateagatik, pertsonaia batek betetzen du narratzailearen papera, istorioa lehenengo pertsonan kontatuz. Baina idazleak ikuspuntu hori gaintitu behar duenean, tupustean, beste pertsonaia batek jokatu du narratzailearena, "ni" desberdinez osatutako mosaiko anitza sortuz. Beharbada, garai hauetarako gaiok piskat urrun gera daitezke; ezin dugu ahaztu, hala ere, euskal literaturan dagoen idazlerik garrantzitsuenetako bat dela Martin Ugalde.